

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 206ko AZAROAREN 17an
EGINIKO OHIKO OSOKO BILERAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esterban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko azaroaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udaltzaba Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1º.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko urriaren 20an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Hasiera batean onestea, bidezkoa bada Udaleko Arau Subsidiarioak puntualki aldatzea, Arespalditzako Administrazio Batzordeak hala eskatuta. Aldaketaren xedea da Arespalditza udalerrian dagoen “El Ferial” izeneko erabilera anitzeko eraikinaren eta haren partzelaren (5. poligonoko 84. partzela) kalifikazio xehatua baimendutako erabilerak areagotzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzaba Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Arespalditzako Administrazio Batzordeak aurkeztutako eskaera, Aiarako Antolamenduaren Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeari buruzkoa. Aldaketa horren xedea da “Arespalditza udalerrian dagoen “El Ferial” guneko erabilera anitzeko eraikinaren (Aiarako 5. poligonoko 84. katastro-partzela) kalifikazio xehatua baimendutako erabilerak areagotzea

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordeak 2016ko urriaren 26ko bilkuran emandako aldeko ebazpena.

AINTZAT HARTU DA.- Udal-arkitektoak eta Udaleko idazkariak hurrenez hurren 2016ko urriaren 19an eta 21an hasiera batean onestearen aldeko txostena eman zutela.

AINTZAT HARTU DA.- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006) 85.3, 104., 90. eta 91. artikuluetan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/1985) bere 22.2 eta 47.3 artikuluetan ezartzen duena.

Udalbatzako kideek, aho batez (guztira Udalbatza Osoa osatzen duten 11 zinegotzi), honako hau **EBATZI DUTE**:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea Udaleko Arau Subsidiarioen 7. Aldaketa Puntuala., Arespalditzako Administrazio Batzordeak hala eskatuta.

Bigarrena.- Jendaurrean hilabetez ikusgai egoteko epea zabaltzea, eta iragarkiak ALHAOn eta eskualdean hedadura handiena duten egunkarietako batean argitaratzea. Hilabeteko epe hori aipatu iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da. Epe horretan, agiri guztiak Aiarako Udaleko idazkaritzan egongo da ikusgai herritarrei arreta emateko ordutegian, baita Udalaren webgunean ere (Udal-arloak eta zerbitzuak – Hirigintza – Antolamendu-tresnak atalean) , interesdunek azter ditzaten eta egoki deritzen oharrak eta alegazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Onespen-, baimen- eta lizentzia-emakida guztiak bertan behera uztea onestea, gehienez ere urtebetez, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-erregimena aldatzea dakarten esparruetan.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea udalerriko Administrazio Batzordeari, dagozkion txostenak egin ditzan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Azaroaren 25eko erakunde-adierazpena.

Iraida andreak (AB) adierazi du Batzordean aipatu zela azken puntu hori, partida hornitzeko konpromisoari buruzkoa, konpromiso horiek modu zehatzagoan gauzatzeko. Igorri duzuen adierazpen-proposamenean, konpromiso ekonomiko horrek pixka bat ukiezina izaten jarraitzen du, eta ez bada gehiago zehazten bere taldeak ez du adierazpena babestuko. Partida handitzeko egiazko konpromiso bat egotea nahi du, legegintzaldia amaitzeko geratzen den denborarako.

Susana andreak (EAJ-PNV) dio konpromisoa egiazkoa eta argia dela. Argi utzi nahi dugu Udal honek lan egin nahi duela, eta arlo honetan helburu batzuk dituela; hori da garrantzitsuena, ez partida nola handituko den zehaztea. Orain berdintasun-teknikari bat daukagu, eta helburu horiek zehazteko prozesuan pausoak ematen lagunduko digu.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du konpromisoa dela, gutxienez, 2016ko proposamenetan handitu dena handitzea, 2015ekoekin alderatuta.

Nerea andreak (BILDU) esan du bere taldeak eginiko ekarpenetatik zerbait jaso dela. Baina gainera nabarmendu nahi du barneratzen doazen eduki horiek guztiak hainbat hamarkadatan borrokatutakoaren emaitza direla, eta azpimarratu nahi du aurreko hamarkadetako borroka feministaren oinordekoak direla.

Zinegotzi guztiak ados agertu direnez, erakunde-adierazpenaren azken puntua aldatu da, konpromiso ekonomikoari buruzkoa, eta honela idatzita geratu da:

“Berdintasun-partida handitzea 2017ko aurrekontuetan, gutxienez 2016 ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean handitu den kopuru berean”.

Beraz, aipatutako aldaketa hori jasotzen duen erakunde-adierazpena bozkatu da eta zinegotzien aho batez onetsi.

AZAROAREN 25EKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeria oro arbuiatzen dugula esateaz gain, indarkeria eragiten duten eragile guztiak baztertzeko ditugula ere adierazi nahi dugu. Egun hori funtsezkoa da indarkeria matxistaren askotariko alderdiak identifikatzeko, hasi gizarteak ohikotzat jotzen dituen indarkeria sotiletatik eta kasurik larrienetara, erailketetara, sexu-erasoak eta eraso fisikoak ahaztu gabe.

Halaber, adierazi nahi dugu bat gatzela *“Emakumeenganako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko Europako hitzarmenak” (Istanbuleko Hitzarmena* izenez ere ezaguna) dioenarekin.

Hitzarmen hori estatuen erantzukizun-esparru guztietara hedatzen da: indarkeria prebenitzea, gizartean kontzientzia sortzea (batez ere gizon eta mutilen artean), erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak abiaraztea eta biktimek babesa, laguntza eta kalteordainak jasotzeko bideak erraztea.

Uste dugu hitzarmen hori funtsezko tresna dela, eta esparru egokia dela emakumeenganako indarkeria erroitik deuseztatzeko; izan ere, indarkeria hori da emakume eta gizonen arteko desberdinkeria mantentzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen dena.

Hori dela eta, esandako guztia kontuan hartuta, Aiarako Udalak hitzematzen du honako urrats hauek emango dituela:

- Emakume eta neskenenganako indarkeriaren kontzeptuan sartzea emakumeen aurkako indarkeria harreman intimoetan, sexu-indarkeria (mota guztietako), emakumeen genitalen mutilazioa eta jazarpen sexista.
- Hitzarmenaren aplikazio-esparruan sartzen diren indarkeria mota guztiei buruzko estatistika-datuak aldi-aldi jasotzea. Komenigarria iruditzen zaigu jasotako datuak eskualde mailan ematea, emakumeen anonimotasuna babestu ahal izateko.
- Genero-ikuspegia txertatzea eta desberdinkeria debekatzea, indarkeria arloko printzipio zuzentzaile gisa.
- Emakumeenganako indarkeria giza eskubideen esparruan txertatzea, giza eskubideen urraketa baita.
- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeek rol garrantzitsua izatea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titularrak baitira.
- Arreta-prozesu osoan zehar, emakumei intimitatea izateko eskubidea ematea, konfidentzialtasuna babestuz.
- Indarkeriaren aurrean haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere nesken eskubideak, genero-indarkeriaren biktima zuzenak baitira.
- Arreta ematen duten profesionalek etengabeko prestakuntza jasotzeko beharra aitortzea; prestakuntza ezin da soilik sentsibilizazio-ekintza izan.

- Emakumeenganako indarkeriari aurre egiten eta prebenitzen laguntzen duen gizarte bat sustatzea. Horretarako, borroka feministarekin dugun konpromisoa berresten dugu, hori baita indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko ba eraikitze bide eta tresna nagusia.
- Berdintasun partida handitzea 2017ko aurrekontuetan; gorakada hori 2015etik 2016ra izandakoaren bestekoa izango da, gutxienez.

Hartutako konpromiso horiek buruan, gure eskualdean, alde batetik, indarkeria matxistaren egoerari buruzko diagnostiko bat egingo da; beste alde batetik, indarkeria sexistari buruzko Berdintasunaren aldeko Topaketa bat ere egingo da, elkarteen eta, oro har, herritarren, ekarpenak jasotzeko.

Bukatzeko, Aiarako herritarrei dei egin nahi diegu azaroaren 25aren harira udalerrian eta eskualdean egingo diren jarduera guztietan parte har dezaten.

4.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostenari, diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruz.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza Osoko kideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2015. urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2017. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinen zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

IKUSI DA.- 2016ko azaroaren 14ko Idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak diruzaintzaren gerakinaren gastu orokorrekin finantza egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa, 2016ko azaroaren 14koaren berri du.

- **Alkate jaunak proposatu du aztergaien zerrendatik kanpoko premiazko puntu bat sartzea, Udalak Arabako Foru Aldundiarekin Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako duen hitzarmena aldatzeari buruzkoa, laguntzaile baten bitartez indartzeko helburuarekin.**

Puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hortaz, puntu hau gehitu da:

5.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Aiara, Artziniega eta Okondoko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena aldatzea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko, abenduaren 17ko 66/2002 eta urtarrilaren 12ko 1/2010 foru-dekretuetan ezarritakoari jarraikiz.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du hitzarmenean lanaldi erdiaren gastuaren % 80ren finantzazioa jasotzen dela. Asmoa da Aiarako Kuadrillarekin hitzarmen bat sinatzea, baliabideak eskualdatzeko helburuarekin.

Lauren jaunak (BILDU) diru-laguntzak estaltzen ez duen banaketa-sistemagatik galdetu du.

Idazkari andreak erantzun dio Aiarako Kuadrillako gainontzeko gastuetarako zehaztutako banaketa-sistema erabiliko dela.

Iraida andreak (AB) esan du asko pozten direla zerbitzua indartzeagatik; izan ere, egoera tamalgarrian zegoen.

Josu jaunak (BILDU) esan du interesgarria izango litzateekela gaia Batzordean landu izana.

Gentza jaunak erantzun dio Aldundiak hitzarmenaren zirriborroa batzordeak ospatu ondoren igorri zuela, eta premiazkoa dela onestea abenduan indarrean jarri ahal izateko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA—2003ko maiatzaren 21an onetsi egin zela Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Aiara, Artziniega eta Okondoko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko, abenduaren 17ko 66/2002 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

IKUSI DA.- 2003ko hitzarmen hartan ez zela ezartzen gizarte-langileari laguntzeko administrazioko langilerik behar zenik. Alabaina, hitzarmenaren geografia-esparruan biztanleriak gora egin duenez, gabeziak agertu dira herritarrentzako arreta zerbitzuan; ondorioz, beharrezkotzat jo da arduraldi erdiko administrazio-laguntzaile bat gehitzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen unitatearen egituran. Hori egiteko, beharrezkoa da 2003ko maiatzaren 21ean sinatu zen aipatu hitzarmena aldatzea.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak igorritako zirriborroa, hitzarmena aldatzeko buruzkoa.

Udalbatzak, aho batez, hau **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- Onestea 2003ko maiatzaren 21ean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena aldatzea. Hitzarmen hori Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Aiara, Artziniega eta Okondoko udalek sinatu zuten, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskaintzea zuen xede, abenduaren 17ko 66/2002 eta urtarrilaren 12ko 1/2010 foru-dekretuek ezarritakoari jarraikiz. Aldaketaren helburua da arduraldi erdia izango duen langile bat txertatzea, gizarte-langileari administrazio-lanetan laguntzeko eta, hala, aipatu udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak sendotzeko.

Bigarrena.- Aldaketa hori 2016ko abenduaren 1ean sartuko da indarrean.

Hirugarrena.- Alkateari dagozkion eskumenak ematea aipatu aldaketa-proposamena gauzatzeko agiriak sina ditzan.

- **Aztergaien zerrendako beste puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du beste puntu bat sartzea zerrendatik kanpo, kreditu gehigarriari buruzko espediente bati buruzkoa; bi aurrekontu-aplikazio gehitzeko, Diruzaintzaren Gerakinaren kagura, proiektuak idazteko esleipena egin ahal izateko.**

Lehenik, puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hortaz, puntu hau gehitu da:

6.- Onestea, bidezkoa bada, 6/2016 bilkurako kreditu gehigarria.

Josu jaunak (BILDU) aipatu du proiektuen esleipenaren zenbatekoa gehiegizkoa iruditzen zaiola. Pistak ixteko hasierako aurrekontua 1.900 euro ingurukoa zen, eta harrigarria da orain 10.000 eurokoa izatea. Era berean gehitu du hiri-mugikortasunerako proiektuaren zenbatekoa ere gehiegizkoa iruditzen zaiola. Gainera, gardentasun gehiago edukitzeko, ez da oso egokia udalean lan egiten duten pertsonak gonbidatzea; eta sektoreko lan-egoera aintzat hartuta, beraien ustez egokiagoa da beste teknikari batzuei esleitzea, udaletik kanpo lan egiten dutenei. Izan ere, legezkoa den arren, ez zaie oso egokia iruditzen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du kontratazio-proiektuak legez araututa daudela, eta aurrekontuaren zenbatekoaren arabera zehaztu dela prozedura; guztiz legezkoa eta gardena izan da. Halaber, hiru eskaintza eskatu diru, proiektu bakoitzerako hiru profesionali. Udalari zerbitzu ematen dieten teknikariak ez dira funtzionarioak, eta ez dute lanaldi osoan lan egiten udal honetan.

Josu jaunak erantzun du proiektu horiek profesional hauei esleitzea legezkoa eta posiblea izan arren, ez zaiola oso gardena iruditzen, jendeak gaizki ulertu dezakeelako. Eskatzen dute, ahal den neurrian, beste profesional batzuk gonbidatzeko, udal honetako teknikariak ez direnak. Horrelako egoerak askotan gertatu dira, eta behin eta berriz esango dute gaiari buruzko hausnarketa egitea beharrezkoa dela.

Iratxe andreak (AB) aipatu du egia dela beste batzuetan taldeei galdetu zaiela zein profesional gonbidatu ditzakegun; planteatu daitekeen eztabaida bat da.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ-PNV + 2 AB)

Abstentzioak: 4 BILDU

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak 2016ko azaroaren 14an eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru

Arauk Aldatzen duena) jasotakoari jarraikiz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udaltzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera, jakinaren gainean egoteko.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatza Osoak, gehiengo osoz, HAU **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA (€)
134.601.005	Padura kaleko hiri-mugikortasun proiektua	7.112,10 €
342.643.003	Luaiondoko pista ixteko proiektua idaztea	7.164 €

GUZTIRA: 14.276,10 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatu da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENDAPENA</u>	<u>ZENBATEK OA (€)</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	14.276,10 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Kontu-hartzaitzak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

7º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.: 422/16.- P.C.C.-** Herritarren Udal Erroldan ofizioz baja emateko espedientea.
- **Erref.: 423/16.- Esetek Smart Energy SL.-**Energiari buruzko kontu-ikuskatzea egiteko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.: 424/16.- Zorroza Gestión SL.-** Jarduera-espedienteari buruzko agiriak eskatzea.
- **Erref.: 425/16.- Prosegur España SL.-** Haur-eskolan eta biltokian segurtasun-sistema jartzeko eta horniduraz arduratzeko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.: 426/16.- Onestea F/2016/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.: 427/16.- Axpo Iberia SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2016ko 3. hiruhilekoa).
- **Erref.: 428/16.- Euskal Fundoa.-** Nikaraguan proiektu bat finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.: 429/15.-** Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea.
- **Erref.: 430/16.- Urbabil 2000 SL.-** “Luiaondoko 3. poligonoko 1540. partzela egokitzeko” obrak gauzatzeko kontratua esleitzea.
- **Erref.: 431/16.- Kirolgest SL.-** Ikastaroak emateko kontratua dela eta berme gisa jarritako abala itzultzea eta abal berria onartzea.
- **Erref.: 432/16.- Llantenoiko Administrazio Batzordea.-** Ordainagiriak aurkezteko eskatzea, eskoletako teilatuak konpontzeko obren ordainsariak finantzatzeko diru-laguntza ordaindu ahal izateko.
- **Erref.: 433/16.- M.E.S.L.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Olabazarren dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 434/16.- A.Z.M.** Arabako Foru Aldundiak diru-bilketa exekutiboaren bitartez modu desegokian bahitutako zenbatekoak itzultzea.
- **Erref.: 435/16.- Eragintza Kultur Erakundea.-** 2014.-2016. urteetan Euskal Jolas Txokoak kudeatzeagatiko fidantza itzultzea.
- **Erref.: 436/16.- I.L.U.-** Okupazio lizentzia ematea, “Arespalditzan dagoen etxebizitza batean eskuineko hegala konpontzeko” obrak bukatu ondoren.
- **Erref.: 437/16.- Menoioko Administrazio Batzordea.-** Obrak gauzatzeko udal-lizentzia ematea, Menoioko eskola zaharraren eraikina barrutik gaitzeko.
- **Erref.: 438/16.-** 2016 ekitaldiko ekonomia-jardueren gaineko zergaren zergadun-errola onestea.
- **Erref.: 439/16.- S.R.D.Y.A.-** Menagarain dagoen partzela batean eraikin osagarria eraikitzeko obretarako berme gisa jarritako fidantza itzultzea.
- **Erref.: 440/16.- S.R.D.Y.A.-** Lehenengoz okupatzeko udal-lizentzia ematea, Menagarai udalerriko 2. poligonoko 740. partzelan egindako eraikin osagarriko.
- **Erref.: 441/16.- AMA BIRJINA ZURIA ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza ematea eta lehen ordainketa egitea.
- **Erref.: 442/16.- AIARAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza ematea eta lehen ordainketa egitea.
- **Erref.: 443/16.- AIARAKO BILTOKIA KULTURALA ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza ematea eta lehen ordainketa egitea.
- **Erref.: 444/16.- KIROLGEST SL.-** Kultura- eta kirol-ikastaroak eta -tailerrak emateko zerbitzuaren kontratua luzatzea.
- **Erref.: 445/16.-** Diru-laguntzak ematea 2015. urtean udalerritik kanpo dantza- eta musika-jarduerak egin dituzten adingabeei.
- **Erref.: 446/16.- S.F.D.Z.P.-** Dokumentazio gehiago aurkezteko eskatzea, finkak banantzeko edo biltzeko lizentziaren espedienteari dagokionez.
- **Erref.: 447/16.- E.B.B.-** Dokumentazio gehiago aurkezteko eskatzea, finkak banantzeko edo biltzeko lizentziaren espedienteari dagokionez.
- **Erref.: 448/16.- J.P.D.B. eta Zandesa.-** 2006an hasitako zaharberitze-espedientea iraungitzat jotzea eta beste espediente bat abiaraztea Llantenoan dagoen partzela batean lurra mugitzeko eta betetzeko.
- **Erref.: 449/16.- LUIAONDOKO CLUB DEPORTIVO DE BOLOS LEKUBATXE.-** 2016ko diru-laguntza ematea eta lehen ordainketa egitea.
- **Erref.: 450/16.- LUXAONDO CLUB FUTBOL.-** 2016ko diru-laguntza ematea eta lehen ordainketa egitea.
- **Erref.: 451/16.- M.J.O.U.-** Ondare-erantzukizunari buruzko espedientea abiaraztea.

- **Erref.: 452/16.-** Argiteria publikoa kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren pleguak onestea.
- **Erref.: 453/16.-** 2016 ekitaldiko Zaborren Tasaren errolda onestea.
- **Erref.: 454/16.-** Onestea 2016ko 3. hiruhilekoko Uraren eta Estolderiaren Tasaren errolda.
- **Erref.: 455/16.- Viesgo Energia SL.-** Lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea (2016ko 3. hiruhilekoa), kontzeptua: argindarra eta gasa.
- **Erref.: 456/16.- Llantenoako Administrazio Batzordea.-** Llantenoako eskoletako estalkia zaharberitzeko obraren Segurtasun eta Osasun Ikerketa eta Proiektua idazteari dagokion ordainsaria finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.: 457/16.-** Kontratista hautatzea Luliaondon botika-kutxa gordetzeko etxola zaharberitzeko obra gauzatzeko.
- **Erref.: 458/16.- M.N.B.S.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Olabezarren dagoen eraikin bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 459/16.-** Izoriako Administrazio Batzordea.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Izorian dagoen partzela batean sasiarte garbitzeko eta harriak jartzeko.
- **Erref.: 460/16.- Izoriako Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, lur-jauziaren ondoren arroila garbitzeko.

Josu jaunak (BILDU), 425/16 dekretuari dagokionez, aipatu du ez dela inongo batzordetan esan alarmak aldatuko zirela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bi enpresa zeudela kontratatuta: Securitas Directa eta Tyco. Ikastolako alarmarekin arazo bat egon da, hainbat alditan jo du denbora gutxian; Ertzaintzak ere arazo hori konpontzeko eskaera igorri zuen. Eduardok esan zuen Securitas Direct enpresak ez zuela ezer egin arazoa konpontzeko, eta zerbitzuarekin pozik ez geundenez, beste enpresa batzuei eskatu genizkien eskaintzak. Onuragarriena Prosegur enpresarena izan zen; gainera, atzealdea monitorizatzea eskatu dugu, Eduardok jakin dezan zein dabilen bertan, ez baita ikusten. Era berean, igerilekuaren eta biltegiaren sarreran kamerak jarri dira.

Josu jaunak eskatu du gai hauek batzordeetara eramateko, korporazioko kide guztiek jakin dezaten zer gertatzen den.

8.- Eskaerak eta galderak.

- Iraida andreak (AB) galdetu du ea Ikastolako lanak amaitu diren.
Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio uste duela hurrengo astean amaituko direla.
Iñigo jaunak (EAJ-PNV) aipatu du kanaloietan hainbat irregulartasun hauteman direla, eta horiek konpondutakoan amaituko direla obrak. Bestetik, zuzendariak atzerapenei buruzko txosten bat igorriko du, eta dagokion espedientea abiaraziko da.
- Lauren jaunak (BILDU) Izoriako hormari buruzko informazioa eskatu du.
Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Marisolekin eta aparejadorearekin bildu zirela. Izoriako errejidorearekin bilera bat egiteko eskatu du, eta hurrengo astean egongo dira berarekin.

Josu jaunak (BILDU) gehitu du interesgarria izango litzatekeela interesdunak ere batzordeetara joatea, azalpenak eman ditzaten.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko azaroaren hamazazpian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.